# OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

**Organoa/ Órganoa:** Udalbatza/ *Pleno*

**Deialdia/ Convocatoria:** Lehenengoa / *Primera*

**Bilera mota/ *Tipo de sesión:*** Arrunta / *Ordinaria*

**Eguna/ *Día:*** 2024/04/15 / *15/04/2024*

**Ordua/ *Hora:*** *19:00etan / A las 19:00*

**Tokia / *Lugar:*** Herriko Etxeko Bilera Aretoa / *Sala de Plenos del Ayuntamiento*

**Bertaratuak / *Asistentes*:**

- D. Juankar Unanua Navarro jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Aitor Alonso Esteban jn. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Edurne Huitzi Eratsun and. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Irati Alkorta Garcia and. Igantziko Herri Taldea.
- D. Roberto Txoperena Iturbide jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Gorka Obseo Inza jn. Igantziko Herri Taldea.

**Bertaratu ez direnak/ *No asisten:***

- D. Manuel Telletxea Iparraguirre jn. Igantziko Herria Taldea.

**Idazkaria/ *Secretaria:*** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK/*ORDEN*:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea onestea.
3. 2024. urtean Igantziko udal igerilekuetako komunak eta aldagelak garbitzeko, leihatila kudeatzeko eta taberna kudeatzeko lanen kontratu esleipena (proposamenen balorazioa eta esleipena).
4. Alkate Ebazpenak.
5. Galderak eta eskaerak.

IGANTZIKO UDALA · Karrika Nagusia, 5 · 31790 IGANTZI · ☎ 948 63 77 81 · FAX 948 63 73 01 · e-maila: bulegoa@igantzi.eus · I.F.Z. P3125900-E

**Erabakiak/ *Acuerdos:***

**1.- Azkeneko aktaren onespena.**

2024ko martxoaren 11ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

**2.- Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea onestea.**

Idazkariak azaldu du Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 96. artikuluan xedaturikoari jarraiki, udaleko lan araubideko langileei Lan Estatutua eta onarturiko hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaiela.

Zentzu horretan Igantziko Udala orain arte modu osagarrian aplikatzen zuen Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektiboa. Halaber, udalak ez zuen hori aplikatzeko akordiorik hartua.

Horrela bada, egoera hau erregulatzeko eta segurtasun juridiko nahikoa izateko, idazkariak gomendatu du Igantziko Udala Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-

***1.- Aprobación del último acta.***

*SE APRUEBA POR UNANIMIDAD el acta del pleno ordinario de 11 de marzo de 2024.*

***2.- Aprobar la adhesión al convenio colectivo del personal laboral suscrito por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus Organismos Autónomos con los Sindicatos CC.OO y CSI-CSIF, aprobado por el Gobierno de Navarra el 15 de enero de 2007.***

*La secretaria expone que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 96 del Decreto Foral Legislativo 251/1993, de 30 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido del Estatuto del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, al personal de régimen laboral municipal le es de aplicación el Estatuto Laboral y el convenio colectivo aprobado.*

*En este sentido, el Ayuntamiento de Igantzi venía aplicando supletoriamente el convenio colectivo de personal laboral suscrito por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus Organismos Autónomos con los sindicatos CC.OO y CSI-CSIF, aprobado por el Gobierno de Navarra el 15 de enero de 2007. No obstante, el ayuntamiento no había adoptado un acuerdo para aplicarlo.*

*Así pues, para regular esta situación y tener la suficiente seguridad jurídica, la secretaria recomienda que el Ayuntamiento de Igantzi se adhiera al convenio colectivo de personal laboral suscrito por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus Organismos Autónomos con los sindicatos CC.OO y CSI-CSIF, aprobado por el Gobiemo de Navarra el 15 de enero de 2007.*

*Los miembros asistentes al pleno, una vez recibida la información, POR UNANIMIDAD ACUERDAN:*

*1.- Aprobar la adhesión al convenio colectivo del personal laboral suscrito por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus Organismos Autónomos con los sindicatos CC.OO y CSI-CSIF,*

legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea onestea.

aprobado por el Gobierno de Navarra el 15 de enero de 2007.

**3.- 2024. urtean Igantziko udal igerilekuetako komunak eta aldagelak garbitzeko, leihatila kudeatzeko eta taberna kudeatzeko lanen kontratu esleipena (proposamenen balorazioa eta esleipena).**

***3.- Adjudicación del contrato que tiene por objeto la limpieza de los aseos y vestuarios de las piscinas municipales de Igantzi, gestión de la taquilla y gestión del bar en el año 2024 (valoración de las propuestas y adjudicación).***

Idazkariak azaldu 2024ko martxoaren 26ko 39/2024 Alkate Ebazpen bidez Igantziko udal igerilekuetako komunak eta aldagelak garbitzeko, leihatila kudeatzeko eta taberna kudeatzeko lanen kontratu esleipena arautuko duen plegu ekonomiko-administratiboa onetsi zela.

*La secretaria explica que mediante Resolución de Alcaldía 39/2024, de 26 de marzo de 2024, se aprobó el pliego económico-administrativo que regirá la adjudicación del contrato para la limpieza de aseos y vestuarios gestión de taquilla y gestión de bar de las piscinas municipales de Igantzi.*

Horrela bada, interesdunek euren proposamenak aurkezteko epea apirilaren 15eko eguerdiko 14:00etan bukatu da eta Lizar Sein Arburua izan da aurkezturiko interesdun bakarra.

*Así, el plazo para que los interesados presentaran sus propuestas ha finalizado a las 14:00 horas del día 15 de abril, siendo Lizar Sein Arburua la única persona interesada que se ha presentado.*

Hau horrela izanik, plegu arautzaileko laugarren klausulan xedaturikoaren arabera, 1º gutunazala ireki da eta dokumentazioa administratiboa zuzena dela zehaztu da. Era berean, parte hartuko duten langileen erlazioa, zerbitzua emateko moduari buruzko azalpen-memoria eta euskara ezagutza irakurri eta baloratu dira eta honako hau ondorioztatu da:

*Siendo esto así, de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula cuarta del pliego regulador, se abre el sobre 1º y se determina que la documentación administrativa es correcta. Asimismo, se ha leído y valorado la relación del personal participante, la memoria explicativa sobre la forma de prestación del servicio y el conocimiento de euskera, concluyéndose que:*

| PROGRAMA ETA PLANGINTZA (40) | PUNTUAK | AZALPENA |
|---|---|---|
| Esku hartuko duten langileen kopurua (15) | 15 | Gutxieneko langile kopurua betetzen du. |
| Ostatuko zerbitzua (25) | 12,5 | Nahiz eta eskaintza bakarra izan, aurkezturiko proposamena hagitz urria da. Ez dago garatua eta memoriak ez du formaltasun egokia. Era berean, azalpenaren zati batean *"behin martxa hartuz asteburuetan menuak eskainiko dira."* dioen zatian ez da argi gelditzen ze eskainiko den, hau da, ez da ziurtasunik adierazten. Halaber, ez du azaltzen ze arrazoiengatik ezinen luketen menurik eskaini. |
| EUSKARA EZAGUTZAK (30) | 30 | |
| GUZTIRA | 57,5 | |

Jarraiki, proposamen ekonomikoa duen 2º gutunazala ireki da. Bertan, interesdunak 1.500,00 €-ren truke aitzinetik aipaturiko lanen zerbitzua

*A continuación, se procede a la apertura del sobre nº 2 con la propuesta económica. En el mismo, la persona interesada especifica que prestará los*

emanen duela zehaztu du. Horrela bada, **30 puntu** esleitu zaizkio.

*servicios mencionados anteriormente por un total de 1.500,00 €. Así pues, se le asignan **30 puntos**.*

Ikusirik ez dagoela bertze proposamenik, osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*A la vista de que no hay más propuestas, los miembros presentes en el pleno ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- Lizar Sein Arburuari 2024an Igantziko udal igerilekuetako komunak eta aldagelak garbitzeko, leihatila kudeatzeko eta taberna kudeatzeko lanen kontratua esleitzea.

*1.- Adjudicar a Lizar Sein Arburu el contrato que tiene por objeto la limpieza de los aseos y vestuarios, la gestión de la taquilla y la gestión del bar de las piscinas municipales de Igantzi en el año 2024.*

2.- Esleipendunari jakinaraztea lehenengo puntuan adierazitako zerbitzuak 2024ko ekainaren 15etik irailaren 15era eman beharko dituela. Halaber, ekainaren 10ean establezimenduaren giltzak utziko zaizkio zerbitzua martxan jarri aitzinetik beharrezko prestaketak egin ahal izan ditzan.

*2.- Comunicar al adjudicatario la obligación de prestar los servicios señalados en el punto primero entre el 15 de junio y el 15 de septiembre de 2024. Asimismo, el día 10 de junio se le entregarán las llaves del establecimiento para que pueda realizar los preparativos necesarios antes de la puesta en marcha del servicio.*

3.- Esleipendunari jakinaraztea, plegu arautzaileko seigarren klausulan xedaturikoari jarraiki, jakinarazpen hau jaso eta hamar eguneko epean 270,00 €-ko fidantza paratu beharko duela eskudirutan edo bankuko abalaz; izan ere, dagoeneko 30,00 €-ko behin behineko fidantza jarria du.

*3.- Comunicar al adjudicatario que, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula sexta del pliego regulador, en el plazo de diez días a contar desde la recepción de la presente notificación deberá depositar una fianza en metálico o en aval bancario de 270,00 €, ya que cuenta con una fianza provisional de 30,00 €.*

4.- Esleipendunari jakinaraztea, zerbitzua martxan jarri aitzinetik, plegu ekonomiko-administratiboan xedaturik ez dauden bi alderdien arteko betebeharrak zehaztuko dituen zerbitzu kontratua sinatu beharko dela.

*4.- Comunicar al adjudicatario que, con anterioridad a la puesta en marcha del servicio, deberá suscribirse un contrato de servicios en el que se especifiquen las obligaciones entre las dos partes no previstas en el pliego económico-administrativo.*

5.- Akordio hau Lizar Sein Arburuari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*5.- Notificar el presente Acuerdo a Dña. Lizar Sein Arburu, a los efectos y conocimiento del mismo.*

**4.- Alkatearen ebazpenak.**

***4.- Resoluciones de Alcaldía.***

2024ko 30etik 41era Ebazpenen berri eman da eta UDALBATZAK BERRETSI DITU.

*Se informa sobre las Resoluciones del 30 al 41 de 2024 y el PLENO LAS RATIFICA.*

**5.- Galderak eta eskaerak.**

***5.- Ruegos y preguntas.***

Ez dira egin.

*No se realizan.*

Bertzerik gabe, arratsaldeko 19:40 izanik, bilera bukatutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

*Siendo las 19:40 de la tarde se pone fin a la reunión de la que se levanta la presente certificación de la secretaria, para hacer constar lo que se acuerda.*

**O.E ALKATEA/ *V.B. DEL ALCALDE***

*IDAZKARIA/ LA SECRETARIA*

IGANTZIKO UDALA • IGANTZI - NAFARROA •

Juankar Unanua Navarro

*Nagore Madariaga Iriarte*